



ETXEAN EUSKARA ERABILTZEARI BURUZKO HITZALDIAK

6-12 urte bitarteko umeen familiei zuzenduta.
Hizlaria: Iñaki Eizmendi, Gizarte Hezitzailea.

NOLA LAGUNDU GURE SEME-ALABEI LAGUNARTEAN EUSKARA ERABIL DEZATEN?

Gizarte eleanitz batean bizi gara; zuen seme-alabek gutxienez hiru hizkuntza ikasiko dituzte: Zer dago euskararen erabileraren eta hizkuntza-ohituren oinarrian?; Nola lagundu seme-alabei euskara erabil dezaten lagunartean eta hainbat harremanetan?; Nolako jarrerak sustatu behar genituzke euskararekiko? Eta beste hizkuntzekiko?.

NO SABEMOS EUSKERA, ¿COMO PODEMOS AYUDA RA NUESTROS HIJOS E HIJAS?

Vivimos en un entorno plurilingüe y en el caso de vuestros hijos e hijas, como mínimo aprenderán 3 idiomas: ¿Aprenderán bien euskara y castellano?; ¿Tendrán un buen nivel de inglés?; ¿No tendrán más dificultades por estudiar en euskera y aprender más de un idioma?; ¿No sé muy bien euskera, ¿debo hablarlo con mis hijas e hijos?.

Irailaren 29tik urriaren 28ra, udalerriko ikastetxeetan.

Egutegi zehatza: www.basauri.net.

Izena ematea: **Ikastetxeetan, Udaleko Euskara Atalean (Bidearte kalea, 8) edota euskara@basauri.net helbidean.**

IRAKURZALETASUNA BULTZATZEKO PROGRAMA

2014KO URRITIK 2015EKO MAIATZERA
Sara Bikandi ipuin kontalaria.

«LIBURUEN POLTSA», FAMILIARENTZAKO IRAKURKETA KLUBA

3-8 urte bitarteko umeei eta haien familiei zuzenduta.

Umeengan istorioak eta ipuinak ezagutzeko gogoaz pizteko. Familia osoak ondo pasatzeko.

Urritik maiatzera hilero, ordubeteko saioak: 17:30-18:30. Ibaiganeke eta San Migeleko liburutegietan.

Egutegi zehatza eta argibide gehiago:

www.basauri.net.

Izena ematea: **kultur etxe eta gizarte etxeetako liburutegietan.**

JOLASEKIN LOTUTAKO EKINTZAK IKASTURTE OSOAN ZEHAR

«OLGETAN ONDO PASAU»

«OLGETAN ONDO PASAU» programa zabaldu eta eskaintza berria dago: «FAMILIARTEAN JOLASEAN». Gurasoek eta seme-alabek aukera izango dute elkarrekin euskaraz jolasteko, ikuskizun txikiak ikusteko eta larunbatetan familia guztiarentzako beste jarduera batzuk egiteko (tailerrak, bidaiak, eta abar).

Egutegi zehatza eta argibide gehiago:

www.basauri.net, eta kultur etxe eta gizarte etxeetako ludoteketan.

Gainera:

➤ Social Antzokian urtean zehar **euskarazko ikuskizunak** eskaintzen dituzte eta Kultur Etxe eta Gizarte Etxeetan **tailerrak, solasaldiak, ipuin kontaketak, eta abar** euskaraz ere antolatzen dira. Bilatu ikurra.

➤ Kultur etxeetan ere **umeentzako liburutegiak** ditugula, eta bertan euskaraz hazteko eta hezteko materiala duzuela eskuragarri, adin guztietako umeentzat: ipuinak, filmak, cd-rom-ak, musika, eta abar.

➤ Kultur etxe guztietan **ludotekak** ditugula martxan 4 urtetik gorako umeentzat, euskaraz jolasteko eta jolasten ikasteko, eta Gabonetan ludoteka berezia egongo dela.

➤ Basauri Kirolakenean umeentzako **kirol ikastaroak** eskaintzen dituztela. Bilatu ikurra.

➤ Euskara ikasteko gurasoentzako **euskara ikastaro bereziak** antolatzen direla, bai Udala Euskaltegian, bai AEKko Bolintxu Euskaltegian.

➤ Udalak **diru-laguntza bereziak** (matrikularen %75era artekoak) eskaintzen dizkiela euskara ikasten duten 0-12 urte bitarteko umeen gurasoei, eskoletara joateko baldintzak betez gero.

➤ AEKko Bolintxu Euskaltegiak **Gurasolagun** programa eskaintzen diela familiei, euskara praktikatzeko. Udalak diruz lagundutako ekintza da hauxe.

Argibide gehiago behar izanez gero:

KULTURA-POLITIKA ETA EUSKARA ARLOA
Bidearte kalea, 8
94 466 63 12 / euskara@basauri.net